

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
OGASUN ETA FINANTZA SAILA

181

HUTSEN ZUZENKETA, honako dekretu honena: 230/2014 Dekretua, abenduaren 9koa, Alokabide, S.A. sozietate publikoaren estatutu sozialak aldatzeko baimena ematen duena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako hutsak ikusi dira Alokabide, S.A. sozietate publikoaren estatutu sozialak aldatzeko baimena ematen duen abenduaren 9ko 230/2014 Dekretuaren testuan (2014ko abenduaren 18ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 241. zk.). Hori dela-eta, honako zuzenketa hauek egin behar dira hemen:

2014/5390 (3/2) orrialdean, artikuluko bakarrean, 1. puntuko i letran, euskarazko nahiz gaztelaniazko argitalpenean,

Honela dio:

«Onuradun legez edo zuzenbidez onartutako beste era batez babes ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari, indarreko araudiak xedatutakoarekin bat, eta hain justu ere honako jardura hauek burutzeko: babes ofizialeko etxebizitzak transmititzeari doakionez, eskurapenak lehenetasunez egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aitortutako eskubideaz – lehenetasunez erosteko eta atzera eskuratzekoaz– baliatzeko bitartekaritza-, kudeaketa- eta exekuzio-jarduerak, alegia; betiere, apirilaren 15eko 7/1988 Legean eta hori garatzeko araudian jasotako baldintza eta zehaztapenekin bat, eta bai maiatzaren 6ko 103/1007 Dekretuarekin eta arlo honetako arauak garatu edo ordeztzeko eman dadin ezein araudirekin ere.»

Baina honela esan behar du:

«Onuradun legez edo zuzenbidez onartutako beste era batez babes ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari, indarreko araudiak xedatutakoarekin bat, eta hain justu ere honako jardura hauek burutzeko: babes ofizialeko etxebizitzak transmititzeari doakionez, eskurapenak lehenetasunez egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aitortutako eskubideaz – lehenetasunez erosteko eta atzera eskuratzekoaz– baliatzeko bitartekaritza-, kudeaketa- eta exekuzio-jarduerak, alegia; betiere, apirilaren 15eko 7/1988 Legean eta hori garatzeko araudian jasotako baldintza eta zehaztapenekin bat, eta bai maiatzaren 6ko 103/1997 Dekretuarekin eta arlo honetako arauak garatu edo ordeztzeko eman dadin ezein araudirekin ere.»